

**PROZEDURA IREKI BIDEZ HORNIGAIAK KONTRATATZEKO  
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Agiri honetan oinarrituta sinatuko den kontratuaren xedea izango da Ordiziako udalerriko Oianguren Parkean dagoen Oianguren Baserrirako sukaldea erostea eta instalatzea, agindu tekniko berezien agirian jasotako zehaztapenen arabera.

CPV-08 kodea: 39000000-2

**2. EPEA**

Kontratu honen xedea den hornikuntza entregatzeko eta instalatzeko epea 20 egun naturalekoa izango da guztira, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Kontratatik, aipatutako epeagatik, berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Udalak ez ohartarazi.

Oianguren baserrian (Ordiziako Oianguren Parkea) entregatuko dira hornigaiak eta egingo da instalazioa.

**3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Kontratuak 67.480,00 €-ko aurrekontua edukiko du (55.752,93 €, gehi 11.707,93 €, gutxi gorabehera. BEZa), eskaintzaileek hobetu dezaketena. Prezio horren barruan gastu guztiak sartuta daudela ulertuko da, garraioa barne.

**4. FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko aurtengo aurrekontuaren kargurako finantzaketa aurreikusita dado, aurrekontuko honako partidetan:

- 623.434.12.01 Makineriaren erosketa.
- 623.434.12.02 Instalazioen prestaketa.
- 623.434.12.04 Tresneria.
- 625.434.12.01 Altzariak.
- 625.434.12.02 Bulegoko ekipamendua.
- 625.434.12.99 Etxeko hainbat tresna.

Halaber, aurrekontuetan eskumena daukan organoak hurrengo ekitaldietan tarteko izango diren aurrekontuetan ere behar izango diren kredituak erreserbatuko ditu.

## **5. ORDAINTZEKO MODUA**

Hornikuntzaren prezioa hornigaiak entregatu eta jaso ondoren ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren.

## **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honetan ez dagokio, espedientean jasotakoaren arabera, prezioak berrikustea.

## **7. BERMEAK**

Kontratuaren esleipendunak, hartutako obligazioak beteko dituela ziurtatze aldera, behin betiko bermea jarri beharko du; hain zuzen ere, esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZa kanpo.

Aipatu bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da, 21.5 klausulak aipatzen duen errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 96. artikulua ezartzen dituen bideetatik edozeinetatik era daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko, bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena haren alde egingo.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da bermea (bai osoa, bai partziala, hala badagokio), berme-epea igaro ondoren eta esleipendunak kontratuko betebeharrak bete ondoren.

## **8. KONTRATUA BETETZEA**

Agiri honetan zehaztutako denboran eta lekuan entregatu eta instalatu beharko dira hornigaiak, agindu teknikoak eta administrazio-baldintzak beteta. Nolanahi ere, Udalak, kontratua betetzen den bitartean, beretzat gordetzen du hitzartutakoa ez den beste leku bat finkatzeko eskumena.

Kontratua kontratistaren gain eta haren kontura burutuko da, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, hornidura Udalarari eman aurretik ondasunetan galera, matxura edo kalteak izateagatik, beti ere, ondasunak hartzeko garaian udala berandutzen ez bada.

Kontratua Udalaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta idatziz nahiz ahoz erabili eskumen izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari nahiz horren mende dauden pertsonen kontratuaren kaltetan doazen egintzak edo ez-egiteak egotez badakizkieke, udalak neurri zehatzak hartzea agindu dezake kontratua behar bezala betetzea lortzeko nahiz behar bezala betetzen jarraitzeko.

## **9. ESLEIPENDUNAREN LAN BETEBEHARRAK**

Kontratatik lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legeak xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## **10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNAK, KONTRATUA BETETZEAN BESTEEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.**

Kontratista izango da kontratua betetzeko egin beharreko lanen eta jardueren ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 11. KONTRATUA ALDATZEA

Interes publikoko arrazoiak direla-eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBko 107. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, eta, beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Arestian aipatutako balizko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

## 12. HORNIGAIAK JASOTZEA ETA BERME EPEA

Hornidura eman eta, gehienez, hilabeteko epean, horniduraren harrera formala eta positiboa egingo da.

Hornidura jasotzeko moduan ez badago, hori berariaz adieraziko da, eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzen ditzan edo hornidura berria eman dezan, hitzartutakoaren arabera. Akatsak zuzentzen ez baditu, edo hornidura ordezkatzeko ez badu, Administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu hornigaiak. Horiek horrela, Administrazioak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Halaber, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean jasotakoaren ondorioetarako, **2 URTEKO** epea ezartzen da berme-epe gisa, zerbitzua hartu izana formalki jasotzen denetik kontatzen hasita. Aipatu berme-epe hori lizitatzailleek hobetu dezakete.

Udalak, berme-epean, akatsak dituzten hornigaiak berritu edo konpondu daitezela (hori nahikoa balitz) eskatzeko eskubidea izango du.

Bermea erabatekoa izango da, jarritako material guztiak eta eskulana barne. Sor litezkeen gastu guztiak hartuko ditu barne; besteak beste, garraioa, langileen joan-etorriak, eskulana, materialak eta zergak.

Udala, berme-epearen barruan, jasotako hornigaiak, kontratistaren akatsen ondorioz, helbururako egokiak ez direla konturatzen bada, eta akatsak konponduta

edo hornidura berria emanda nahikoa izango ez dela susmatzekoa bada, Udalak atzera bota ditzake hornigaiak, eta kontratistaren kontura utzi.

### **13. ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA BETETZEN EZ BADU**

#### **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratatik, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan, epe horietan egin beharreko obrak burutu gabe baditu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko 200 euroko diru-zigorra ezartzea.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean, Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena izango du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

#### **B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA**

Kontratatik, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epearen barruan bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea, edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

#### **C. LANA GAIZKI BURUTZEA**

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

### **14. HITZARMENA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 223. eta 299. artikuluetan xedatutakoak dira.

### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Honako eskumenak ditu Udalak: kontratua interpretatzekoa, kontratua betetzearen inguruan egon daitezkeen zalantzak ebaztekoa, interes publikokoaren inguruko arrazoiengatik aldatzekoa, suntsiaraztea erabakitzekoa eta horren ondorioak

zehaztekoa; hori guztia, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako mugen eta baldintzen eta ondorioen barruan.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **16. ESLEITZEKO PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena prozedura ireki eta izapidetze arrunt bidez egingo da.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzen balorazio-irizpideak, eta ematen zaien haztapena honakoak izango dira:

**Irizpide horietatik, balio-judizio baten pean daudenak eta apreziazio automatikoen aurretik baloratuko direnak, honako hauek dira:**

#### **1) HORNITU BEHARREKO GAIEN EZAUGARRI FUNTZIONALAK ETA TEKNIKOAK (35 puntu, gehienez).**

Agindu tekniko berezien agirien I. eranskinean eskatzen diren ezaugarriekiko eskatu den ekipamendua hobetuko duten ezaugarri teknikoak baloratuko dira. Halaber, hornitu beharreko ekipamenduen funtzionalitatea ere baloratuko da.

Ondorio horietarako, lizitatzailleek hornitu beharreko ekipamenduen deskribapena egiten duen agiria aurkeztu beharko dute. Agiri horretan, ekipamenduen gaitasun eta ezaugarri teknikoak eta funtzionalak deskribatuko dira. Orobat, argazkiak ere bidal daitezke, lizitatzailleek egoki baderitzote, arestian aipatutako kontzeptuen lagungarri.

**Apreziatio automatikorako irizpideak (ondoren aipatutakoak) jarraian aipatzen diren formulen bidez baloratuko dira:**

**1) Prezioa: 50 puntu, gehienez. Baloraziorako formula honako hau izango da:**

50 puntu eskaintzarik ekonomikoenerako. Gainerako eskaintzetarako, lizitazio-oinarriaren eta eskaintzarik ekonomikoenaren artean daudenetarako, formula honako hau izango da:

$P = 50 - \% \Delta$

P izanik: baloratutako puntuak

$\% \Delta$  izanik: aztertutako eskaintzaren igoera portzentuala (ehunekoetan) eskaintzarik ekonomikoarekiko, eta bigarren dezimalera biribilduta.

$$\% \Delta = \frac{\text{Aztertutako eskaintza} - \text{eskaintzarik ekonomikoena}}{\text{Eskaintzarik ekonomikoena}} \times 100$$

## **2) Bermeak (15 puntu, gehienez)**

**Epearen inguruan eskaintzarik egiten ez bada, eskaintzako epea agiri honetan ezarritakoa dela ulertuko da; hau da, 2 urte. Balizko horretan ez da kontzeptu horrengatik puntuaziorik emango.**

**Hiru (3) urteko berme-epea ematen bada: 3 puntu.**

**Lau (4) urteko berme-epea ematen bada: 6 puntu.**

**Bost (5) urteko berme-epea ematen bada: 9 puntu.**

**Sei (6) urteko berme-epea ematen bada: 12 puntu.**

**Zazpi (7) urteko berme-epea ematen bada: 15 puntu.**

Eskaintzen neurritz kanpoko edo ohiz kanpoko izaera prezioa esleitzeko irizpidearekiko soilik hartuko da aintzat, aurkeztu diren baliozko eskaintzei dagokienez eta ondorengo arauen arabera:

Hasiera batean, neurritz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat joko dira ondorengo balizkoetan dauden eskaintzak:

1. Lizitatzailerik bakar bat aurkeztuta, lizitaziorako oinarriko aurrekontua baino baxuagoa bada 25 unitate portzentualetan baino gehiagotan.

2. Bi lizitazaile badaude, bi eskaintzak alderatuta, besteak baino 20 unitate portzentual baxuagoa duena.
3. Hiru lizitazaile badaude, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate portzentual gutxiago dituena. Nolanahi ere, neurri horren kalkulurako zenbateko altuena kanpo utziko da aipatu batez besteko horretatik 10 unitate portzentual baino gehiago badu. Edonola ere, neurriz kanpokotzat joko da 25 unitate portzentualetik jaisten dena.
4. Lau lizitazaile edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate portzentual gutxiago dituena. Nolanahi ere, eskaintza horien artean aipatu batez besteko hori baino 10 unitate portzentual gehiago duten eskaintzak badaude, batez besteko berri bat kalkulatu da, soilik balizko horren barruan ez dauden eskaintzekin. Dena den, gainerako eskaintzen kopurua hiru baino gutxiago bada, batez besteko berria zenbateko txikien duten hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.
5. Salbuespen gisa, eta kontratuaren xedeari eta merkatuaren inguruabarrei erreparatuta, kontratazio-organoak, arrazoiturik, aurreko ataletan finkatutako portzentajeak heren batean murriztu ditzake administrazio-baldintza berezien agirian.
- 6. Eskaintzak neurriz kanpokotzat jotzeko, kontratazio-mahaik aintzat har dezake enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko erlazioa.

Balorazio-irizpide guztiak puntuatu eta gero berdinketa suertatuko balitz, honako irizpide-hurrenkeran puntuazio gehien lortu duena aukeratu da: lehenik, prezioaren irizpidean puntuazio onena jaso duena; ondoren, ezaugarri funtzionalen irizpidean puntuazio onena jaso duena; eta, azkenik, berme-eparearen irizpidean puntuazio onena jaso duena.

## 17. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Igor Eguren Izagirre.
- Mahaikideak:



- Unai Rekondo Perez, udaleko idazkaria.
- Jose Luis Aranburu Otegi, udaleko kontu-hartzailea.
- Esteban Eskoriatza, udaleko arkitekto teknikoa.
- o Mahaiko idazkaria: Ana Urkizu Kerejeta, administrazio orokorreko teknikaria.

Mahaiaren bileretan, aztertu beharreko gaien arabera, beharrezkotzat jotzen diren funtzionarioek nahiz aholkulariek parte hartu ahal izango dute, eta hitza edukiko dute, ez, ordea, botorako eskubiderik.

## **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-prozedura honetan, baldin eta beren ekonomia eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 60. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren bat ere ez badute. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak 21.5 klausulan ezarritakoak izango dira.

Halaber, parte-hartzea norberak aurkeztu dezake edo horretarako baimena duen ordezkariak. Horretarako, ordezkariak beharrezkoa izango du xede honetarako beren beregi emandako behar besteko ahalordea. Pertsona juridiko bat ordezkatzuz haren kideren bat agertzen bada, dokumentu bidez justifikatu beharko du baduela behar besteko eskumena horretarako. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragingo diote kontratazioa ezin gauzatu izateko adierazi diren arrazoiek.

Enpresariak, halaber, kontratu honen xede den jarduera burutzeko edo zerbitzua emateko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo gaitasun profesionala izan beharko dute.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoak, administrazio honetako idazkaritzan aztertu ahal izango da, goizeko 8:00etatik 13:30ak bitartean, egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako

Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik hasita, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte.

Eskaerak adierazitako leku eta ordu horietan aurkeztu behar dira, 15 egun naturaleko epean, aipatutako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Aipatu epea larunbatean, igandean nahiz jaiegunean bukatuz gero, epea egun horren hurrengo egun baliodunean bukatuko dela ulertuko da.

Halaber, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profileen emango da argitara, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da: <http://www.ordizia.eus/>

Gune horretan berean, baldintza-agirietarako eta dokumentazio osagarriako sarbidea ere egongo da.

Lizitatuzaileek eska dezaketen baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan emango zaie, beti ere, eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskaerak badira.

SPKLTBko 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatu epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari atxikitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek eskaintzak egiteko beharrezkoa duten informazio guztia jaso dezaten ahalbidetzeko bezainbat.

Eskaintzak jasotzeko finkatutako epez kanpo aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta postetxera epea bukatu aurretik eraman izana ziurtatu. Alabaina, onartu egingo dira baldin eta proposamena postaz bidalitako egun horretan bertan bidali izanaren agiria helarazi bazaio Kontratazio Organoari telex bidez, fax bidez, telegrama bidez nahiz posta elektronikoz. Iragarkia posta elektronikoz bidali nahi izatera, Herri Administrazioako Kontratuei buruzko Legearen

Araubide Orokorrak halako posta-bidalketak onartzeari buruz 80.4 artikulua xedatzen duena bete beharko da.

## **20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA**

Lizitatuzaileek, ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEAREN ZIURTAPENARI DAGOKIONEZ, ERANTZUKIZUNEN AITORPENA (ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRI HONETAKO 1. ERANSKIN GISA JASOTA DAGOEN EREDUARI JARRAIKI) AURKEZTU BEHARKO DUTE, EZ BESTERIK, ETA HORRETAN ADIERAZI BEHAR DUTE ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO LEGEZ EZARRITA DAUDEN BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA.

Administrazioarekin kontratatze eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatze unean erabakigarria proposamenak aurkezteko epea bukatzen denekoa izango da.

Esleipen-proposamena jasoko duen lizitatuzaileak, kontratua esleitu aurretik, agiri honetako 21.5 klausulan eskatzen diren agiriak baliozkoak direla bermatu beharko du kontratazio-organismoaren aurrean. HORTAZ, PROPOSAMENAK AURKEZTEKO UNEAN EZ DA BEHARREZKOA IZANGO AGIRI HONETAKO 21.5 KLAUSULAN ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA. NAHIKOA IZANGO DA ARESTIAN AIPATUTAKO ERANTZUKIZUNEN AITORPENA AURKEZTEA 1. ERANSKINEKO EREDUARI JARRAIKI.

Aurrekoarekin bat, lizitatuzaileek, ERANTZUKIZUNEN AITORPEN HORREZ GAIN, BI GUTUN ITXI (A eta B) aurkeztu beharko dituzte, ez besterik, eta horietako bakoitzean honako hau jarriko dute: "..... PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal bakoitzean, honakoak adieraziko dira: enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer kargu duen sinadura eman ahal izateko. Bi gutun-azalek ere sinaturik egon beharko dute.

**ERANTZUKIZUNEN AITORPENA EZ DA GUTUN-AZALETAN SARTUKO. EZEIN KASUTAN EZ DA ERANTZUKIZUNEN AITORPENA A edo B GUTUN-AZALETAN SARTUKO.**

**“A” gutun-azalaren azpititulua “BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK” izango da,** eta bertan, balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzko agiriak jasoko dira, agiri honen 16. baldintzan adierazitakoak.

Lizitatuzaileek hornitu beharreko ekipamenduen deskribapena egiten duen agiria aurkeztu beharko dute. Agiri horretan, ekipamenduen gaitasun eta ezaugarri teknikoak eta funtzionalak deskribatuko dira. Orobat, argazkiak ere bidal daitezke, lizitatuzaileek egoki baderitzote, arestian aipatutako kontzeptuen lagungarri.

**“B” gutun-azalaren azpititulua “DIRU PROPOSAMENA ETA BALORAZIO AUTOMATIKORAKO BALORAZIOAK” izango da,** eta agiri hauek jasoko dira:

- a) Administrazio-baldintza berezien agiri honetako II. eranskina, behar bezala beterik.
- b) HORNITU BEHARREKO GAI GUZTIEN aleko prezio; alegia, AGINDU TEKNIKO BEREZIEN AGIRIKO I, ERANSKINEAN JASOTAKOENA.

## **21. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKITZEA ETA PROZESATZEA, ETA ENPRESAK AUKERATZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako lan hauek burutuko dira:

1º. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA EGIAZTATZEA; ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO LEGEZ EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZIKO DA (administrazio-baldintza berezien agiri honetako 21. klausulako 5. puntuan jasotako baldintzak).

2º. "A" GUTUN-AZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

Mahaiak, aurreko puntuan jasotakoa beteta, A gutun-azala (balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzkoa) irekiko du ekitaldi publikoan.

### 3. "B" GUTUN-AZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"A" gutun-azala irekita, eta horretan dagoen dokumentazioa baloratuta, "B" gutun-azala irekiko da ekitaldi publikoan, kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan.

Eskaintza bakoitzean balio-judizioaren menpe dauden irizpideei emandako balorazioa jakinaraziko da ekintza honetan.

### 4º. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak baloratuta, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera, ordena beherakorreen, eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBko 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz kanpokotzat jotzen bada, eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari edo lizitatzailari, hala dagokienez, entzungo zaio eskaintza horiek hala diren edo ez erabaki aurretik, eta, halaber, dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko eskatuko da.

Kasu horretan, lizitatzailak emandako arrazoiak eta eskatu diren txostenak kontuan hartuta, kontratazio-organoak ekonomikoki onuragarriena den proposamena egiten duen lizitatzailari esleituko dio, administrazioaren baldintzak betetzeko gai dela irizita.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete irizten badio, ezohiko balioak edo neurritz kanpoko balioak dituelako, sailkapenetik baztertuko du, eta ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri jasoko da espedientean, nahitaez idatziko diren aktetan.

## 5º. ESLEIPEN PROPOSAMENA JASO DUEN LIZITATZAILEARI ERREKERIMENDUA

Aurreko pausoak emanda, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, ESLEIPEN PROPOSAMENA JASO DUEN LIZITATZAILEARI honako agiriak aurkezteko eskatuko zaio:

a) Lehiatzailearen edo horren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean jardunez gero, notario-ahalordea. Erakunde honek hori askietsiko du gutun-azala horretan aurkeztutako dokumentazioa sailkatzean.

b) Lizitatzalea pertsona juridikoa bada, eraketaren edo aldarapenaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta eta identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, baldin eta aplika dakioken merkataritza-legediak pertsona juridikoa inskribatuta egotea eskatzen badu. Ez bada pertsona juridikoa, eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza erabiliko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko. Kasuan kasuko erregistro ofizialean izena emanda daukan jarduera erregulatzen duten arauak zehaztuko dira agiri honetan.

Europar Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak izanez gero, dagokien erregistroan izena emanda daudela ziurtatzeko agiria aurkeztu beharko dute, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria, betiere, aplikatzekoak diren xedapen europarren arabera.

Gainerako enpresari atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute, dagokien estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorren edo enpresaren helbidea kokatuta dagoen lurralde eremuko kontsuletzeko bulegoaren txostenaren bidez.

C) Erantzukizunpeko berariazko aitortpena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Halaber, zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak beterik dituela bermatuko duten ziurtagiriak ekarri beharko ditu.

d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea ziurtatzea, zehazki kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako, alta bera aurkeztu beharko du, aurtengo ekitaldikoa bada, edo EJZaren azkeneko ordainagiria, gainerako kasu guztietan; nola kasu batean, hala besteetan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizuneko aitortpena ere aurkeztu beharko du.

e) Eskaintzaileak behar besteko gaitasun ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala dituela erakusten duten agiriak.

e.1. Enpresaburuaren gaitasun ekonomiko eta finantzarioa ondoren aipatzen diren bideetako bidez bermatuko da:

e.1.1. Kontratuak xede duen esparruan urtean izan duen negozio-bolumenaren bidez, kontratuaren baldintzetan eskatutako zenbatekoaren berdinean edo hortik gorakoan.

Zenbateko hori lizitaziorako oinarritzko aurrekontu gisa agiri honetan ezarritako bera, gutxienez, izan beharko du.

e.2. Lizitatzaileren fidagarritasun teknikoa ondoren aipatzen diren bitarteko bidez bermatuko da, eta horiek guztiak ziurtatu beharko ditu:

e.2.1. Azken bost urteetan hornitutako gai nagusien zerrenda, eta zenbatekoa, datak eta jasotzailea publikoa edo pribatua den adieraziko du. Hartzailea sektore publikoko entitate bat bada, egindako hornidurak horretarako eskumena duen organoak egindako ziurtagiri bidez bermatuko dira; hartzailea erosle pribatu bat bada, hark egindako ziurtagiria aurkeztu behar da. Ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitortpena aurkeztu behar da.

Horri loturik, gutxienez HAMAR hornidura edo gehiago egin izana eskatuko da, eta horietako bakoitzak agiri honetan lizitaziorako oinarritzko aurrekontu gisa ezarritako zenbatekoaren berdina izan beharko du (gutxienez hamar hornidura aipatutako 5 urteko epean).

e.2.2. Sektore publikoko kontratatzaileak eskatuz gero egiazkotasun- ziurtagarria duten hornigaien deskribapenak eta argazkiak.

Agindu tekniko berezien agiriko eranskinean zerrendatzen diren hornigai guztien deskribapena eta argazkiak aurkeztu beharko dira.

f) Enpresari-multzo bat lizitaziora Aldi Baterako Enpresa Elkartea gisa aurkezten bada, elkartea hori osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko ahalmena eta kaudimena bermatu beharko ditu, aurreko klausuletan ezarritakoa betez, eta, halaber, esleipena eskuratuz gero, aldi baterako enpresa hori formalki eratze konpromisoa hartu beharko du. Horrez gain, proposamenean argi adierazi beharko dute enpresa-elkarteko bakoitzak zer lan zehatz egingo duen, guztien kaudimena zehazteko eta egiaztatzea ahal izateko.

g) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, bai eta lizitatzailerari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela jakinarazteko adierazpena ere, kasua hori balitz.

h) Jardunbide honetatik sortuko diren jakinarazpenak jasotzeko posta elektronikoaren helbidea, SPKLTBko 151.4 artikuluan xedatutakoaren arabera eta ondorioetarako.

Aurreko a), b) eta e) ataletan zehaztu diren eskakizunak egiaztatzeke, hiru modu daude: EAE Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiria aurkeztea, Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiria aurkeztea, edo sailkapeneko ziurtagiri komunitarioa aurkeztea (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 84. artikulua adierazten duen moduan). **Ziurtagiri horrez gain, lizitatzaileraren erantzukizuneko aitorpena ere aurkeztu beharko da, adierazteko ziurtagiri horretan islatzen diren egoerak ez direla aldatu.**



Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria elektronikoa izan daiteke.

i) Behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

Eskaera aipatutako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lehiatzaileari, eskaintzak aztertzerakoan jaso duten ordenaren arabera.

## **22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratazio-organoak alderdi ekonomikotik onuragarrien iruditzen zaion eskaintza egin duen lizitatuzaileari emango dio esleipena.

Esleipena kontratazio-organoak egingo du, eta lizitatuzaile guztiei emango zaie horren berri. Horrez gain, erakunde honetako kontratatzailearen profilean emango da argitara.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da, eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake; hala egingo balu, horri dagozkion gastuak haren kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean (berau ez da izango 15 egun baliadunetik gorakoa), esleipendunak honakoak egin beharko ditu:

a) Administrazio honen bulegoetara etorri beharko du, kontratua administrazio-agirian formalizatzeko.

### **III.- IZAERA, LEGE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

## **23. KONTRATUAREN IZAERA ETA LEGE ARAUBIDEA**

Baldintza-agiri honetan oinarritutako kontratuak administrazio-izaera edukiko du, eta agiri honek eta atxikitako gainerako dokumentazio teknikoak zuzenduko dute. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza berezien agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **24. DATU PERTSONALAK BABESTEA**

Kontratazio honen bidez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBko hogeita seigarren xedapen gehigarrian adierazitako betebeharrak bete beharko ditu, Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoei dagokienez.

#### **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dira zuzenean hala badagokio, SPKLTBko 40tik 49ra bitarteko artikuluek nahiz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluk arautzen duten kontratazioaren inguruan errekurtsio berezia jartzeko aukerari aurka egin gabe.

Ordizian, 2014ko abenduaren 18an

Alkatea

Sinatua: Igor Eguren Izagirre

**I. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEN AITORPENERAKO EREDUA, ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO LEGEZ EZARRITAKO BALDINTZAK (BALDINTZEN AGIRIKO 21.5 KLAUSULAN EZARRITAKOAK, BEHIN BETIKO BERMEA ERATZEARI BURUZKOA IZAN EZIK) BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO**

..... jn./and.,  
helbidea: .....  
PK....., NAN zk....., telefonoa.....  
Posta elektronikoa.....  
Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere buruaren izenean (edo honen ordezkogisa).....  
Helbidea:.....  
PK....., telefonoa....., eta NAN edo IFK (pertsone fisikoari edo juridikoari dagokionez) zk.....), prozedura irekiaz jabeturik, .....(e)k deitua, ..... kontratatzeke, honako hau aitortzen dut:

- 1) Lizitatuzaileak Administrazioarekin kontratatzeke legalki eskatzen diren baldintzak betetzen ditu, eta, kontratua esleitu aurretik, esleipendun izatea proposatue balitz, kontratazio-organoaren aurrean dagokion dokumentazioa aurkezteke konpromisoa hartzen du, eskatzen diren dokumentuak dituela eta balekoak direla egiaztatzearren, 3/2011 Errege Dekretu Legegileko 146. artikuluek xedatutakoari jarraiki. Horrela, pertsonalitate juridikoa, ordezkaritza, bere kasuan sailkapena/kaudimena eta Ogasunarekikoe eta Gizarte Segurantzarekikoe zorrik ez izateari buruzko dokumentazioa, eta oinarritan eskatzen den beste edozein aurkezte beharko du.
- 2) Kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza berezien agiria eta gainontzeke agiriak ezagutzen ditut, eta neure gain hartu eta ontzat ematen ditut oso osorik.
- 3) Ordezkaten dudane enpresak zerbitzua irekitzeke, instalatzeke eta funtzionamenduan jartzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu.

.....n, 20.....(e)ko .....ren .....(e)an.

Sinadura

## II. ERANSKINA. BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMEN EREDUA

..... jn./and.,

helbidea: .....

PK....., NAN zk....., telefonoa.....

Posta elektronikoa.....

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere buruaren izenean (edo honen ordezkogisa).....

Helbidea:.....

PK....., telefonoa....., eta NAN edo IFK (pertsone fisikoari edo juridikoari dagokionez) zk.....), prozedura irekiaz jabeturik,

.....(e)k deitua, ..... kontratatzeko,

honako hau aitortzen dut:

1) Gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, ..... €-ren truke, gehi .....€ BEZa (BEZa: % ..... izanik). Lana burutzeko epemuga ..... izango da, eta aipatutako oinarritzko prezio horren barruan gastu guztiak sartuta daudela ulertuko da, garraioa barne.

2) ..... URTEKO BERMEA eskaintzen dut.

3) Kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza berezien agiria eta gainontzeko agiriak ezagutzen ditut, eta neure gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-oso-oso.

4) Ordezkatzen dudana enpresak zerbitzua irekitzeko, instalatzeko eta funtzionamenduan jartzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu.

.....n, 20.....(e)ko .....ren .....(e)an.

Sinadura